


*Bidarrain sortua nuk mendien artean,
Hik ezagutu dukan etxeño batean;
Hire koplak ikasi ditiat haurrean,
Barna sarturik zaudek ene bihotzean*
(Otxalde-ri, 1911).

ETXEKOAK ETA HAURTZARO-GAZTAROAK

Bertsoaren arabera, *Jules Martin Moulier* Bidarrain sortua zen (Nafarroa Beherean), 1888ko apirilaren 7an, Begiederreko garden kazernan. Jean Moulier bere aita guarda zuen, sortzez kanboarra (1851-1925). Marie Hiribarne ama, berriz, itsasuarra zen (1865-1926). Jules seme zaharren honen ondotik, beste hiru seme-alaba ukan zituzten Moulier-Hiribarne senar-emazteek.

Jean Moulier 1888an Bidarraiko kazernan baldin bazegoen ere, buruzagiek laster bidali zuten Lasara, gero Baigorri Urdozera, geroago Anhauzera, 1894ean Bidarraira berriz itzultzeko. Aitaren aldakuntzen arabera, erran dezakegu Jules Moulier-ek eta guraso-haurrideek ongi ezagutu zutela urte haietan Itsasutik Arnegirainoko muga. Hor gaindiko eskoletan eta oporretako etxe batzutan, hala nola Itsasuko bere amaren etxondoan edo Baigorri



J.M. MOULIER «OXOBI» (1888-1958)
XX. mendean, iparraldeko euskal literaturan lekuri behinena du Oxobi olerkariak. Lagunarteko gizona izan zen, arraia eta hizkera bizikoa. Ahots ederrekoa, hizlari aparta. Herri osoaren zerbitzari ona, eta giza ahuleziak bihotz onez begiratzen zituena. Harrera onik ez zen falta izan haren etxean eta mahaian, Euskaltzalea eta euskaltzaina izan zen. Itxura sendo eta betekoa zen Oxobi, baina haur baten bihotza zuen udaberriaren aurrean, ibaian arrantzan edo basoan perretxiko bila.

Otsobiako ahaideen etxean ukanen ditu noizbait Oxobik haurtzaroko oroitzapen gozoenak.

1897an, ordea, ez dakigu zuzen zergatik, Jean Moulier-ek Bidarraitik urruntzea eskatu zuen eta Baionara bidali zuten, urte beteren buruan, aldiz, Zokoara eta 1899an Ahurtira, han bururatuko baitu 1904ean bere ibilaldia.



APAIZ-LAN ETA EGOITZAK

Anartean, Jules Moulier gazteak adierazia zuen, apaiztu nahi zuela, eta bere gurasoek Larresoroko seminario aipatura lagundu zuten. Baina, urte haietan, Frantziako gobernuak ahalegin gogorra baitzeraman apaiz, fraile eta seroren aurka, Larresoroko etxeaz gobernu hori jabetu zen, eta hango ikasle ta irakasleak kanporatu. Jules Moulier, bere apaizgai lagunekin joan zen, beraz, lehenik 1906an Maulera eta gero seminario handiko ikasketak egiteko Biarnoko Nay herrira. Han apaiztu zen, ba, 1912ko uztailean.

Apaiz egin eta berehala Hiriburuko apaizlagun izendatu zuten Oxobi, 1912an. Laster gerra etorri zen; baina, osasun txarrekoa zela apaiz gaztea baitzioten sendagileek, Hiriburun gelditu zen. Gerraondoa ere hor berean utzi zuten.

1928an, bada, berrogei urtetara heltzen zela, Moulier apaiza Dohoztiriko erretore egin zuen Baionako jaun apezpikuak. Baionako moldiztegietatik urrundurik ere, berdin laketu zen gure bidarraitarra Arbelako etxalde, ostatu, bide, bideska, iraztor eta erreketan.


IDAZLEA

Urteen buruan Oxobik irabazita zuen gazteen arteko itzala ere. Eskutitz honetan ikus daitekeenez, prest zegoen haiei laguntzeko (kasu honetan Iratzeder-en argitalpen batean), baina beti ere handiusterik gabe.

1941ean apezpiku berri batek Nafarroa Beheretik Lapurdira deitu zuen berriz Dohoztiriko jaun erretorea, Arrangoitzeko erretore jartzen zuela. Hamalau urte egin behar zituen herri horretan. Bainan, osasunak huts egin zionean, 1955ean, bere baitarik kargua utzi zuen eta Hiriburuko apaizen zaharretxera bildu zen.

1958ko otsailaren 7an Hiriburuko zaharretxean hil zen Jules Martin Moulier apaiza, eta, berak eskatu bezala, Moulier familiaren hobira, Itsasuko hilerrietara eraman zuten gorputza. Apaiz zenak hain maite zuen airean, *Anderea gorarik zaude lehioan*, Mixel Labeguerie adiskideak ontu zizkion zazpi bertso:

*Mendiak bete elurrez,
Begitarteak nigarrez,
Otsaileko goiz izotza iguzkiaren dirdirez,
Zure begi hetsiak azken lo
ametsez*



II. GIZONA ETA APAIZA

*Bi begietan ximixtak, botza dena ihurtzuri,
Azaletik otso beltza, bainen bamez uso xuri,
Lehengo profeta bat zinuen iduri*
(M. Labeguerie-k, hiletakoan)

AITA IDURIA

Ileak, begiak, betespalak beltzak zituela errana da, Jean Moulier brigadieraren paperetan. Bizarra ere beltzarana, omen; sudurra luzea; begitarte orrazea arroltzekara: aurpegia gorrasta; bizkarra zabala eta kaizuz bierartekoa, hots 1,65 metro, horra beraz zer zen aitaren itxura, eta semea ezagutu dugunok, erran genezake, zinez, dena aita iduria zela semea.

Berdin ikusi zuten ere Mixel Laberguerie sendagile poetak (bere bertsuetan, *Azaletik otso beltza* dio) eta Pierre Narbaitz bikario nagusiak, bere hitzaldian, Hiriburuko ehortzetan.

KASERNAN JAIOA (1888)
Jules Martin Nafarroa Behereko Bidarrain jaio zen, Aduanetako kasernan, Begieder auzoan, bere aita goarda bait zuen bertan. Aitaren ogibideak eramanda, familiak herriz herri ibili behar izan zuen Oxobiren haurtzaroan.

AZALEZ OTSO

«Haurretik edo dakit nondik, zioen Narbaitz kalonjeak, gogoan daramagu poetaren halako itxura berezi bat. Poeta honek, ordea, asmatzen dugun gizon herba, ameslari, gogoetatu haren deus antzekorik ez zeukan. Hedoietan gogoz ibiliagatik ez zuen sekulan lurra gaitzen. Nehor guti ikusi dugu hura bezain finko lurrian finkaturik: gizon motzorra zen irazkiz eta haren aurpegi gorrailak bekan salatzen zuen poetaren barne ikara. Bekan ere zuen irri batek haren begitarte geldia arraitzen eta nork ikusi ote du behinere karkailaz lehertzen? Bainan barnez bazekien irribarre egiten. Haren begiak, hain argiak eta hain eztiak, pindartzen ziren batzuetan eta bapatean ekaitza zapartatzen zen; ohiko botz ezti hura ortzantz bilakatzen; Olympo gaineko Zeus-ek berak ez duke maiz horrelako ihortziririk aurtiki».

3



BARNEZ USO

Baina ez zen, izatez, Moulier apaiza baino gizon hoberik. Ez baitziren finki hartu behar haren uztar eta putarrak. Izan ote da inor hura baino eskuzabalagorik? Inor bihotz-hoberik? Inor maitagarriagorik? Inor jarraikiagorik? Eta hain pozik zegoen denekin, handiekin bai eta xumeeekin. Bera, «handiketarik» zelarik, hitz horrek berez eta egiaz adierazten duenaren arabera, ezen bere bihotz handia erakusten zuen, baina buruzagiak gutietsi gabe; ez baita hor Narbaitzen ustez, batere kontraesanik.

BIDARRAI

Besteak baste, Oxobik Bidarrain, bere sorterrian, eman zituen Seminariora aurreko urte on batzuk: hango elizan ibili zen eta hango eskoletan ikasi zuen. Argazkietan, Bidarraiko herria (eskuinetan Eskola ere) eta Eliza.

Ontasun isil eta ulerkor horren oinarri, bazegoen gizonaren buru argia, edo areago, haren sentiperatasuna....

Horra zergatik bazekien, poeta zen bezala, biziaren emaitza guztiei ohartzen eta haiek neurri onean gozaten. Maite zituela-eta, txoriñoaren kantua, eguzki izpiaren fereka iheskorra, ur erreka zurru-murrutsuko xarboaren jauzia, iratze gorriaren oineko onddoen usain on goxoa eta ostatu xokoko mahain inguruan bildu diren adiskide on eta xeheen konpainia, nor da harrituko?.

Eta gero bazekien ere bere barneko berri ematen «hitzaren» laguntzaz. «Hitza» baitzen haren tresna hautuzkoa, hain ongi ezagutzen zuena; hain artezki eta hain tematsuki zerabilen tresna. Baina bego behin poetaren lana, aipatzeko orain apaiz-lana.



APAIZ-LANA

Hiriburutik Hiriburura, Dohoztiri eta Arrangoitzen barna, Moulier apaizak egin zuen itzulian, ez dugu aurkitzen urrats desbideraturik, ez zalapartarik, ez bihurrikeriarik. Bakarrik apaiz on baten gar jarraikia, hutsik gabeko laguntza gordea, ahulezia eta herbaldura guztien adimen isila. Eta nolako duintasuna! Bereizkuntzarik egiten ez duen apaizarena. Oroz gainerik aldarean zen elizgizon agertzen. Ofizio-emaile paregabea baitzen bere xehean, hango mintza, kanta, ibil-moldeen nobleziagatik. Noblezia berarekin jakin zuen, ordua

OTSOBIA (Baigorri)

Bidarraiko sortetxeaz aparte, eta bere familiarekin hainbat herritan bizi izandako herri-etxeez gain, oporraidietako etxe haurrarentzat maitagarriagoak ere ezagutu zituen Jules Martin haurrak: Itsasun eta Baigorri, adibidez. Argazkian, Baigorriko Otsobia baserria, ahaidekoen etxea. Oroitzapen maitagarri honetatik hartu zuen geroko idazle-izenordea ere.




iristean, kargua uzten eta azkenik pairamenaren aroan isil eta umil sartzen. Baina gero, hileta-egunean, han omen zen Itsasuko bidea argitzera etorria eta zenduari ohore egitera, sasoin kontra izanarren, Hego-haizea:

*Aingeru hegal ixil bat jin zautzu bila gau batez,
Eta orai iduri du, haize hegoa entzunez,
Intzirika dagola euskara oinazez.*

(M. Labeguerie)

MOULIER / HIRIBARNETARRAK

Oxobik, itsasuarra zuen bere ama: Marie Hiribarne (1865-1926), eta Itsasun dago Moulier-Hiribarnetarren hilobia. Hitz bakar eta labur batez bildu da hilarrian bizien hilondoko ametsa: Pax (Bakea).



III. EUSKALTZALEA ETA IDAZLEA

EUSKALTZALEA

*Esnea zurgatzean euskara dut edan,
Euskaraz minltzo're zaut odola zainetan...*
(Haur elhe haurrentzat. 1944)

Zenbatetaraino euskara menderatzen zuen Moulrier aitak, zuzen ez genekike, nahiz sortzez kanboarra zen, eta orduan –gaur ez bezala– Kanboko seme-alabak euskaldunak ziren, gehienak behintzat. Euskararekin batean, kaskoin piska bat ere entzun bederen zuela Jules Moulrier gazteak, aitaren guarda lagunaren artean, uste dugu. Dena den, amarengandik, hainbat aldiz eta hain ederki kantatu zuen amarengandik, zuela euskara zurgatu, berak aitorturik badakigu:

LARRESORO: SEMINARIO OHIA
Larresoroko Seminario txikia 1820an ireki zen. XIX. mendearen hondarretan euskal idazleen mintegia bilakatu zen, baina 1906an Gobernuak konfiskatu egin zuen. 1926rarte apaizgaien ikasketak handik kanpo egin behar izan ziren. Horregatik, Oxobi Maulera pasa zen (1906) eta gero Biarnoko Nay-ra: 1912an hemen apaiztu zen.

*Aho batek ezтики diolarik «ama»!
Hitz goxo bakar horrek mundu bat derama...*
(Botz, ohiu, deiadar, nigar. 1913)

Haurtzaroko beste oroitzapen gozoenak gogoratzean ere, bai Itsasuko amaren etxondokoak, bai Baigorriko Otsobian iragan oporraldiak, baita Bidarraiko xaharrekin ikasitako Otxalde zenaren bertsoak ere, ez da dudarik Oxobiri bere euskaldungoaren sustraiak berritzen zitzaizkiola.



Baina erraz asma dezakegu euskararen aldeko atxekimendu hori sakondu baizik ez zitzaiola egin bere ikastaroetan, ohartzen garenean zein ziren Larresoron edo Nay-en aurkitu zituen irakasle eta ikaskide zenbait. Urte haietan, alabainan, Larresoron bazebilen euskaltzale saldo ederra: Arnaud Abbadie buruzagia bera lehenik eta gero Manex Hiriart-Urruty, Jean Blaise Adéma, Jean Barbier eta beste zenbait irakasle. Ikasleen artean, berriz, bera baino zahartxeago Jean Elissalde eta Jean Saint-Pierre, baina adin bereko Louis Dassance uztariztarra.

1903-1905etako urte haietan beretan, hain zuzen, ikusi zuen bidarraitar gazteak, nola Frantziako gobernua jazartzen zitzaion euskaldunen mintzairari, Pabeko prefetak zigortzen zituenaz geroz Bidarraiko bi apaizak, eta beste frango, ez zietelako beren herrietako haurrei «katixima» euskararen ordeztan frantsesez eman nahi.

Bazekikeen, beraz, zertaz ari zen gure Oxobik, berrogei urte geroago, bai apaizen bilkuretan *euskararen zaintzeaz eta lantzeaz* bere lagunei mintzo zitzaieiarik, bai *Euskaltzaleen Biltzarrean, Gureak gure* oihukatzen zuenean, baita euskal haurrentzat bertso eder hauek ontzean ere:

*Iratzea mertxikaz bete jarriko,
Zezen beltza zazpi xahalez erdiko,
Labettoa elhur xuriz gorrituko,
Euskaldunek euskara dute galduko.*

(Haur elhe haurrentzat. 1944)



HIRIBURU (1912)

Apaiz egin orduko Hiriburura bidali zuten apaiz gaztea. Hemen bete zuen urte-sail bat 1928rarte. Urte haietan, lehentxoago 1911n hasita, ekin zion bere idazle-lanari, aldizkaritan ezezik baita liburutan ere. Laster izan zen ezaguna iparraldeko euskal irakurlegoaren artean. Argazkian, Hiriburuko eliza.

LEHEN BERTSOAK ETA ARTIKULUAK

Apaizgai zelarik oraino, 1911n, hasi zen Jules Moulier gaztea, bere lehen bertsoak argitaratzen. *Euskalduna* astekarian zituen argitaratu eta orduan egiten ohi zen bezala, izenorde bat hartu zuen: Haurretako oroitzapenetatik hartu zuen «Otsobi», geroago «Oxobi» izango dena. Bertso horiek gero, orraztaldi berri bat emanik, biltzen ditu Oxobik bere lehen liburuan. Hau Baionan agertu zen, 1913an, *Botz, oihu, deiadar, nigar!* izenarekin. Bi argitalpenak erkatuz, errazki ohartzen gara hastetik aireak eta gaiak ongi hautatzen dituela bertsolari gazteak: aireak dira, aspaldiko *Euskaldun Kantaria*, A. Goyeneche sendagile zenaren kantutegi aipatuan aurkitzen ziren haiek berak: «Lurraren pean», «Mendian zoin den eder», «Bidarraitarra», «Ume eder bat», «Kaiku», «Amikuzeko Gilen», eta holako.


BOZ-OIHU! DEIADAR! NIGAR!

Han-hemen sakabanatuta zebiltzanak bere lehenengo liburu honetan bildu zituen Oxobik (1913): Izadia, laborariaren bizitza, Euskal Herria, familiartea, etab. ziren olerkizunak. Badu «Gaiten eskuaraz mintza» dioen poema bat ere.

Gaiak, aldiz, XIX. mendeko bertsolari ezagunek erabili ohi zituztenak: laboraria, arotza, xardina saltzailea, baita haurrak, txori papogorria, ottia, sagarrak edo arrosak ere, eta gorago igoz ama, Euskal Herria, euskara, adiskide zaharrak edo aintzineko bertsolariak. Neurtitzaren beraren aldetik, ordea, badute lehen bertsoek halako herrebes edo herrenbel aire bat, tarteka. Baina, gero, huts horiek zuzentzen dira, ariz-ariz trebatu baita egundainotik arotz aprendiza.

ALEGIAK (1926)

Alegien munduari gogoz heldu zion Oxobik eta alor honetan idazle maisua bilakatu zen, aldizkako argitalpenetan bezala bere liburuetan ere. Hona hemen, Garmendia-ren apaingarriekin kaleratu zuen alegi liburua.



Hitz lauez ere, laster hasi zitekeen Jules Moulier apaiza, Manex Hiriart-Urruty bere irakasle ohiari artikulu bat edo besteren bidaltzen, *Euskaldunarentzat* eta *Almanaka*-rako. Baina, oroz gainera, Hiriart-Urruty bapatean hil zelarik, 1915eko Azaroan, eta euskaltzale gazte gehienak gerran zirenez, Blaise Ademak euskal astekariaren zuzendaritza hartu behar izan zuenean, Hiriburuko bikario gaztea bilakatu zen *Euskalduna*-ren isileko idazkari.

HEIATIK ZERURA (1935)

Liburu honetan bildu zituen Oxobi-k bere olerki erlijiosoak, kritikariren baten ustez autorearen ederrenak: Ebanjelioetako gertakariak eta Garizuma-Aste Santuetako misterioak dira kantagai.



KAZETARI-LANAK

Gerra-denboran eta hala beharrez esan daiteke, beraz, kazetari bilakatu zela Oxobi. Baina kazetari isila, izenik gabe agertzen ohi baitziren haren artikuluak. Gerraondoan bizkitartean, Jean Saint-Pierre eta Jean Elissalde adiskideekin hitzartu ziren, Bilboko *Euzkadi* egunkarian zegoen Kirikiño-ri Iparraldeko berriak helerazteko eta horrela egin zuten, Oxobi eta bere lagunek, bizpahiru urtez (1919-1922).

Urte haietan sortu zen *Gure Herria* hilabetekaria ere, sortzailetarik izan baitzen Oxobi, bere adiskide Saint-Pierre, Elissalde, Dassance, Apesteguy, Choribit eta Barbier-ekin. «Bertzen Irakurgaietan» izenburupean eman zuen artikulu-sail bat, 1921etik 1924era, baita, bestalde, «Lihoaren lanaz», Bidarraiko «Harpen dagoen sainduaz», «Euskaltzaleen Biltzarraz», «Gipuzkoan eta Bizkaian gaindi» egin itzuliaz orrialde ugari ere; baina, oroz gainera, aldizkari berri horretan argitaratzen hasi zen *Belea eta Axeria* eta lehen alegiak.

OXOBIREN ALEGIAK

Nahiz alegi-idazle asko izan dugun euskal literaturan, Juan Antonio Mogel eta Juan Mateo Zabalagandik hasita, Agustin Iturriaga eta Leon Goyetcheren bitartez, Adema-Zaldubiganaino, gure ustez guztiak gainditu zituen Oxobik. 1926an, alabaina, Baionan argitara zuen, P. Garmendiaren apaindurekin, *Alegiak* izeneko liburuska eta berehala Euskal Herri osora zabaldu zuen argitalpen txukun horrek egilearen omena.

Ez zen bada bere neurrian liburu handia: *Axular, euskaldun idazlen Irakasleari* egin eskaintzaren ondotik, 13-14 alegia doi-doia. Baina nolako pitxiak! Zinez harrigarria da hitz neurtuaren betea, hotsen musika, treituen zehatza, ipuinak buruan buru daraman urratsaren zuzena.

Zenbait urte geroago Oxobik bildu zituen beste horrenbeste alegia, hari beretik, *Haur elhe haurrentzat* izenburuarekin oraingoan, Baionan 1944ean argitara emandako beste liburuska batean.

Azkenean, hil aitzinean, *Gurre Herrian* eman baitzizkigun oraino beste bospasei alegia, esan dezakegu hogeitamar bat direla orotara Oxobik ondu dizkigunak; baina, denak ez bada gehienak bederen, ikasiz geroz erraz ahaitzen ez direnak, hala nola *Bele beltza*-rena, *Jaun Erretoraren mando mula xuria*-rena, *Aker adar makurra*-rena, *Pelo artzaina*-rena edo *Saguen Biltzarra*-rena.



HAUR ELHE HAURRENTZAT (1944)

Nabaria da Oxobirengan haur eta gazteekiko ardura. Liburuxka honetan bildu zituen haientzat bereziki idatzitako bere lanak.

OXOBIREN OLERKIAK

*Guarda seme naiz eta, barkamendu beraz,
Menditar gaizo aurten nola bainintzen jaz;
Gauaz ametsetarik, halaber egunaz,
Gogo bihotzak alhan mendiaren onaz.*


(Oxobiren lan oroigarri zenbait,
1966: «Mendiz mendi»)

Oxobiren alegiak erakusten digute zein neurtziari trebea zen haien ontzailea; baina, beste bertso askotan ikus dezakegu, nola zerabilen Oxobik bere trebetasun hori, bai barrenean barna sartzeko, bai goian gora igotzeko, hala nola Euskal Herriko mendiez bururatu gabe utzi zuen obraren moldatzean edo lehenago Jean Saint-Pierre adiskide apaizpiku zenduari otoitz bat eskaintzean:

*Ordu zen har zinezan lanen arau sari
Otoi zerutik zaude gure lagun handi,
Emaguzu aintzina esku, bihotz, argi!*

ARRANGOITZE

Lapurdikoko herri honetan bizi izan zen Oxobi hamalau urtetan (1941-1955). Argazkian, herriko eliza eta apaiz-etxea.



Oxobiren olerki aberatsenak, gure ustez, 1935ean Baionan argitara zuen liburuskan aurkitzen ditugu, *Heiatik Zerura* izeneko obran. Hor sartzen ditu gure gizonak *Agur Mariatik* hasita, *Zurginaren semea*, *Oren Beltza*, *Amaren Altzoan* eta Ebanjelioko pasarte nagusietan barna, *Aitaren eskuinerat* deritzan azkenerainko, olerki bete horiek. Hala nola *Ortzegun Saindu*-ren karietara aipu duelarik ogi ahamenaren etorki harrigarria:

*Gogoan hartu duguia behin zer den ogi ahamena?
Zenbat lan eta nek'izerdiren azkenekotz den ordaina?
Neguko xuxen bekigun belhar, hazia garbi eraina;
Udaberrian sarha jorratze, onak hartu arte gaina,
Udaminean uztailarekin, distiran ogiak zorhi.*

11

OXOBI HIZLARI

Bada aldizkari edo liburuetan argitara zituen artikulu, ipuin, alegia edo olerkiez bestalde inon argitara ez diren Oxobi-ren mintzaldi eta prediku asko ere, aipatzea merezi luketenak: Hain ziren argiak, zuzenak, zorrotzak eta sarkorrak non hizlari eder eta handiaren fama eman baitzioten euskal herrietan. Baditugu, hala ere, adierazgarri, *Gure Herria*-k begiraturik, 1938ko Euskaltzaleen Biltzarrean, *Gureak* gure gaiaz emandako hitzaldia, eta 1952ko bertsolarien egunean Sarako elizan egindako predikua. Galdu diren prediku eta mintzaldiek ez zieten horiei zorrik, eta entzuten zituztenek aitortzen, bai, orduan zuela Oxobik «lehengo profeta bat iduri», Labeguerie adiskideak berari kantatu zion bezala:

*Mendiak dira elhurtu, zure lanak bururatu,
Bere fruituak emanik, zuhaitz zaharra kraskatu,
Eta Euskal lurreen betikotz pausatu.*



ANTOLOGIA (1966)

Gure Herriak kaleratutako obra hau dugu idazlan poetikoen artean bilduma hautatu zabalena eskaintzen diguna, pastoral bat era barne dela: «Nola gauden euskaldun».



EUSKAL HERRIKO HERRIAK

Bera bizi izandako herriak, maite zituen Oxobi olerkariak. Ikusi besterik ez dago nola kantatu zituen Uztaritze edo Kanbo. Argazkian, Kanboko herria egun. Honelakoetan ere asmatu zuen euskal kezka kantatzen: «Euskal baratzeetan Kanbo da lehena! (...). Jendeak aireketa zabiltzan kanpoan: / Heien ahotik hitz bat eskuaraz ez zoan!.. / Zorigaitz! Kanboraino hiria da jina... ». Aita Kanboko zuen Oxobik.